



## Dantza emanaldi zirrargarria Kultur Etxean

Lasarte-Oriako Antzerki eta Dantza Asteak hasiera bikaina izan zuen larunbatean herriko dantza taldeen ikuskizunarekin. Kultur Etxea bete egin zen herriko 10 talde eta 120 dantzaren emanaldia ikusteko. Azkenean Antzerki eta Dantza eskolaren abesti berria dantzatu zuten oholtza gainean ziren dantzari guztiek eta ikusleek batera. /4-5

## Ospitaletara autobusa gaurtik aurrera martxan da astegunetan

Gaur astelehena jarriko da martxan Lasarte-Oria, Usurbil eta Zubieta Ospitaleekin lotuko dituen autobus zerbitzua eta beraz lasarteoriarrek aspalditik eskatzen ari zirena martxan jarriko du Foru Aldundiak. Lurraldebusek Urnieta eta Lasarte-Oria arteko autobusen ordez, Usurbil eta Ospitaleen artekoak jarriko ditu. Astelehenetik ostiralera 13 joan etorri egingo dituzte autobusek, lehenengo 7:15etan aterako Usurbildik eta azkena 20:15etan Ospitaleetatik.

Arantza Tapia Foru Aldundiko ordezkariak eman zuen ostiralean zerbitzu berriaren berri ospitaleetan. Lasarte-Orian Donostia etorbidean (ohiko tokian) geldituko da 20 plazako autobus txikia eta beste bi geltoki ere izango ditu, ospitaletarako norabidean Tajamar biribilduean,



Urnieta joan etorria egiten zuen autobus txikia erabiliko da Ospitaletara zerbitzua martxan jartzeko.

Usurbil eta Astigarraga arteko autobusa gelditzen den toki berean, eta Zubietarantz doanean, Hipodromo etorbidean Kutxa parean.

Ospitaleetan, Gipuzkoa Poliklinikan, Onkologikoan eta Donostia Ospitalean gertuko da bi norabideetan.

Lasarte-Oriako ordutegia ospitaletara bidean: 7.30; 8.30; 9.30; 10.30; 11.45; 12.45; 13.45; 14.45; 15.45; 16.45; 18.00; 19.00; 20.00 eta 21.00. Usurbildik ordu laurden lehenago aterako da eta Zubietatik bost minutu lehenago pasatuko da.

Ospitaleetako ordutegia hau da: 7.45; 8.45; 9.45; 10.45; 12.00; 13.00; 14.00; 15.00; 16.00; 17.00; 18.15; 19.15 eta 20.15. Lasarte-Oriara, 8.00; 9.00; 10.00; 11.15; 12.15; 13.15; 14.15; 15.15; 16.15; 17.30; 18.30; 19.30 eta 20.30tan iritsiko da. •

## Ibaia taldeak Euskal Musika ekarri zuen Kultur Etxera

Gure Herriko Musika izenburua zuen kontzertuan Ibaia taldeak euskal musika herrikoia ekarri zuen ostiral arratsaldean Kultur Etxera. Ikusleen aldetik ez zuten arrakastarik izan, jende oso gutxi hurbildu zen emanaldia ikustera, baina euskal abesti tradizionalen errepaso dotorea eman zuten Laura Latienda, Iñigo Dieguez, Ritxi Salaberria eta Igor Telletxea, esperientzia handiko musikariek. Eurek sortutako ale batzuk ere eskaini zituzten. •



## GIZARTEA/3

Goegi-Ibarrako Babestutako 76 etxebizitzaren zozketa egiteko baldintzak onartu ditu Udalak

## KULTURA/6

Ahozkotasun jaialdian Sasoeta eta Landaberrin bertsolaritzan ari diren haurrek kantatu zuten



## Bideo Lagunak

Ez zaitzala harrapatu itzalaldi analogikoa!



Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

# Udan ere kirol eskaintza zabala

Udal Kirol Zerbitzuak adin guztietarako ekimenak eskaintzen ditu uztaile eta irailean

Udaleko Kirol Zerbitzuak udarako ikastaro sorta antolatu du herriko heldu, gazte eta haurrentzat.

Aurten, gainera, lehenengoz, Kirol Udalekuak antolatu dituzte LH3 eta LH6 mailako gaztetzozentzat.

## Haurrentzako jarduerak

Uda izanik, uretan egiteko ikastaroak antolatu dituzte bereziki haurrentzat.

Honela, haurtxoekin igeriketa ikastaroak egongo dira. Iaz lehenengo aldiz egin zen jarduera eta izan zuen arrakasta ikusirik aurten ere ikastaroa antolatu du kirol zebiztuak.

Bi taldeetan banatuko dira haurrak, bata, hilabete gutxi-ko umeentzat, 6 hilabetetik urte batera eta beste taldea, urte betetik 2 urtera artekoa izango da. Jarduera astean bi egunetan egingo dute.

Halaber, 5 urtetatik gorako haurrek ere, uztailean eta abuztuan zehar astelehenerik ostiralera, aukera izango dute igeri egiten ikasteko.

Hau guztiaz gain, LH3 eta LH6 mailako gaztetzok kirol ezberdinez gozatzeko aukera izango dute Kirol Udalekuetako hamabost egunetan.

Era berean, San Pedro jaiei aurre harturik, ekainaren 24an, Uretako Festa egingo da igerilekuan.

Festa honetan, herriko haur guztiek parte hartu dezaketa.

Hala ere, kiroldegiko bazkideek doan izango dute sarrera eta bazkide ez direnek, 3,30 euro ordainduko dituzte.

## Heldu eta gazteentzako ikastaroak

Heldu eta 12 urte baino gehiago diruzten gazteentzat ere eskaintza zabala aurkeztu du.

Uretatik kanpo egingo diren ikastaroei dagokienez, honako ikastaroak izango dira aukeran: indoor txirrindularitza edo spinning, pilates, tonifikazioa eta aerobika.

Igerilekuan, berriz, honako hauek egingo dira: igeriketa



Ekainaren 24an, Ureta Festa antolatuda haurrentzat. Hala ere, uztaile eta irailerako ikastaro eskaintza zabala dago kiroldegian.

ikastaroa, aquaerobika eta aquagyma.

## Izena ematea

Uztailean hasi eta irailean bukatuko dira ikastaro guztiak, baina abuztuan etena egingez.

Astean zehar egingo dira ikastaroak eta, helduen kasuan, ordutegia zabala da.

Ikastaro horietan izena emateko epea ekainaren 7an hasiko da, Kirol udalekuetako izenak izan ezik. Hori dagoeneko irekia dago.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko aukera daude, kiroldegiko bulegora hurbildu, goizeko 10:00ak eta 12:30ak artean edo 17:00etatik 19:00etara, arratsalde; edo 943 376 182 zenbakira deitu. •

## Kirolerako oharrak

### Beltzak-Ostadar Erugby eskola

Beltzak-Ostadar Erugby eskola martxan jarri zen otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelinen, beti ere, futboleko partidarik ez badago.

Erugby eskolako antolatuak Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

## Fernandez udaltzaina, Espainiako txapeldun

Eneko Fernandez, Lasarte-Oriako Udaleko Udaltzaina, txapeldun izan zen Polizia eta Suhiltzaileentzako Espainiako Txapelketa txirrindularitzako lineako proban eta erlojupeko proban bigarren izan zen.

Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean jokatu zen lehiaketa Vilasecan, Tarragonan, eta donostiarrak txapelketa honetan parte hartzen zuen lehen aldian.

Lineako probak, 85km, 105 parte-hartzaile izan

zituena eta Eneko bakarrik iritsi zen helmugara minutu bateko abantailarekin. 11 kilometroko erlojupekoan, aldiz, bigarren amaitu zuen, lehenengotik 5 segundura.

### Gipuzkoako txapeldun

Fernandezek ia 20 urte darabata txirrindularitzan eta afizionatu mailan lehiatzen da.

Joan den martxoan bigarren izan zen Maltako Itzulian eta Gipuzkoako txapeldun da elite mailan. •



Txirrindularitzako linea proban txapeldun geratu zen Fernandez.Arg.: L-O Udala

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Goiegi-Ibarrako BOEn zozketa egiteko baldintzak onartu dira

## Udalak 76 etxebizitza egingo ditu Goiegiko Ibarren

Ostegunean, Lasarte-Oriako Udalean ospatutako batzarraren Goiegiko Ibarra promozioan etxebizitza babestua lurrazaleko eskubidearen erregimenean adjudikatze zozketaren deialdiko baldintzak eta prozedurak onartu ziren.

Oraindik zehaztu gabe dago zozketaren data. Izan ere, alkatetzaren ebazpenaren zain dago.

Erregistroan izena eman duten herritarrek dute aukera zozketan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean baldintzak eta prozedurak argitaratzen diren egunaren hurrengo 15 egun naturalen barruan amaitu da promozio honetan parte hartzeko aukera.

Hala ere, erregistroak irekita jarraituko du eta izena ematen dutenek hurrengo promozioetan sartuko dira.

### Kupoak eta etxebizitza kopurua

Orotara 76 etxebizitza izango dira Goiegiko Ibarren.

Etxebizitzak eta garajeak adjudikatze eskatzaileen kupo ezberdinak hartuko dira kontuan.

Alde batetik, mugikortasun urri iraunkorreko desgaitasunak dituztenak. Hau da, gorpil-aulkira mugatuta daudenak, oinez ibiltzeko derrigor bi eskumakilen beharrezko direnak eta minusbalio-tasun gradu 7 puntu edo gehiago aitortuta dutenak. Kupo honetarako, egokitutako



Goiegi Ibarra Babes Ofizialeko 76 etxebizitzaren zozketa egingo du Udalak.

4 etxebizitza egongo dira Goiegiko Ibarren.

Beste eskatzaile kupoa familia ugariarena izango da, 5 kide edo gehiagoko bizikide-unitatea osatzen dutenak. Horretarako, familia ugariaren txartela aurkeztu beharko da eskatzaile-orka betetzerako orduan. Honela, promozio honetan familia ugarietako 4 etxebizitza egongo dira.

Hirugarren kupoa 35 urte baino gutxiago dutenek osatuko dute. Hau da, bizikide-unitateek non kide guztiak, salbuespenik gabe, adin hori gaingintzen ez dutenak. Era honetara, gazteentzat 38 etxebizitza zozketatuko dira Goiegiko Ibarra promozioan.

Azkenik, bestelako eskatzaileen kupoa aurkitzen

dugu. Alde batetik, kide bakar edo bi kideko bizikide-unitateak, eta bestetik hiru kide edo gehiagoko bizikide-unitateak. Beti ere, familia ugaria ez badira.

Gainerako eskatzaileentzat 30 etxebizitza egongo dira. Hauetatik, erdia etxebizitza kide bakar edo bi kidez osatutako bizikide-unitatera igorriak izango dira, eta beste erdia hiru kideetako aurrerakotzat.

### Behin-betiko listak

Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko Departamentuak eskabideak egiaztatzen dituzten onartuen behin-behinekoko lista aterako da. Eta hauek izango dira azkenik zozketan parte hartuko dutenak. •

SALAKETA

## Atsobakarreko langile batek bidegabeko kanporaketa salatu du

Bidegabeko kanporaketa salatu nahi du N.P.A Atsobakarreko langile ohiak. Martxoaren 23an bere lanaldia amaituta "nire nagusiak bulegora deitu eta kaleratze eskutitza aurkeztu zidan, ahozko abertimenduak nituelako" azaldu digu. N.P.Ak argudio hauek erabat gezurtatu nahi ditu, "nik uste orain dela gutxi egin ditugun manifestazioak eraginda norbait kaleratu behar zutela egoera baretzeko."

Langile honek ez du berronarpena eskatzen "badakit hori ez dela gertatuko, nik Atsobakarren lanean pasa ditudan lau urteen ordainak nahi ditut" adierazi digu.

N.P.A duela 4 urte hasi zen Atsobakarren Gabinete enpresaren esku zegoenean. Duela urte bat, Clece enpresa sartu eta finkoa egin zuten "subrogatua dago, beraz, lanean egon naizen 4 urteak zor dizkirate, ez beraiekin egon naizen urtearen ordaina" azaltzen digu.

Clece enpresatik ez dute adierazpenik egin nahi izan eta honen aurrean N.P.Ak "amaiera arte iritsiko naiz" azaldu digu. •

HEZKUNTZA

## Andre Joakina-enea haur-eskolako 2010-2011 aurrematrikula gaur irekiko da

Andre Joakina udal haur-eskolak 0-3 urte arteko haurrak hartzen ditu. Udalak jakin arazi nahi die gurasoei, 2010-2011 ikasturteko aurrematrikula egiteko garaia iritsi dela.

Gaur irekitzen da epea eta hilaren 28a arte, ostirala, irekia egongo da. Interesatuak, Manuel Lekuona kultur etxean bigarren solairuan, 9:00etatik 13:00etara, eskatu dezakete informazioa eta aurrematrikula egiteko orria.

Aurrematrikula egiteko unean, 40 eurotako errezibo bat libratuko zaie eskatzen den kontu korrontetik. Eta zenbateko hori matrikula ordaintzean kenduko zaie. •

UDAKO TXOKOAK

## Udako txokoetan izena emateko epea asteazkenean bukatzen da

Haurrek udan ongi pasatzeko aukera zabala eskaintzen du Ttakun Kultur elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz antolatzen dituen Udako Txokoetan.

Txikientzako psikomotritzitate programa, HH5 eta LH2koentzat naturaz eta kirolaz gozatzeko aukera eta LH3 eta LH6koek abentura eta kirolaz betetako egunak biziko dituzte.

Hauetan guztietan, izena emateko azken eguna asteazkena, maiatzaren 19a da, beraz, azken egunak dira hauek.

Animatu eta izena eman uda zoragarria igaroko baitute Udako Txokoetako haurrak. •

# Zor ekologikoari buruzko Ekozinemaldia hastear da

Ekologistak Martxan taldeak Ekozinemaldiaren IV edizioari hasiera emango dio Gipuzkoan, nazioarteko sekzioa osatzen duten dokumental filmekin. Laburmetraiak zein luzemetraiak izango dira, non estatu industrialen zor ekologikoa ikuspuntu ezberdinetatik hausnartuko den.

### Ekologiaren inguruko gaiak

Ekologistak Martxak antolatzen duen Ekozinemaldia, orain arte Donostian ospatutako zine zikloa genuen, baina aurtur Gipuzkoako herri batzuetara egingo du salto. Hauetako bat Lasarte-Oria da. Laborantza-ekologikoa, transgenikoa, luraren jabetza, elikagai-subi-

ranotasuna, laborantza-industrialaren aurrean nekazarien erresistentzia, adibidez izango dira ikusiko ditugun filmak hauek landuko dituzten gaiak.

Filmak azaldutako gaiak zuzenki lantzen dituzte; ukitutako pertsonen testigantzekin.

### Zineaz disfrutatuko nahi?

Gaur bertan eta maiatzaren 24 eta 31ean izango dira zor ekologikoari buruzko munduko filmak hauen emanaldia. Kultur etxean, dohainik eta arratsaldetik 19:00tan hasita.

Gaur Coconut Revolution (2000 Papua New Guinea) eta Impactos de la Forestacion en Uruguay filmak egongo dira ikusgai kultur etxean.

Maiatzaren 24an, Tierra bajo corriente eta Climate of hope (climate de la esperanza) izango dira ikusi ahal izango ditugun pelikulak.

Eta azkenik, maiatzaren 31an Con el agua al cuello, R.I.P. sol, contrajunta 2007 eta Quiero ser tortilla filmak izango ditugu Lasarte-Oriako kultur etxean.

Informazio gehiago nahi duenak [www.ekologistakmartxan.com](http://www.ekologistakmartxan.com) web orrialdean begiratzeko aukera du.

Lasarte-Oriaz aparte, Usurbil, Oreretan eta Irunen emanaldiak izango dira. Bertan aurkeztuko diren filmak eta orduak ere, web orrialdean begiratu ditzakezue.

# Udalak herriko langabetuen kontratazioa bultzatuko du

Enplegua Udalaren konpetentzia ez bada ere, Udalbatzarraren aurreratu zuen bezala, hemendik aurrera esleitzen dituen kontratu guztien orrietan klausula bat ezartzea erabaki du.

Horren bidez, enpresa esleipendunek langabezia dauzen lasarteoriatarrak, edo herrian errolatutakoak kontratatzea izango dute ezinbesteko baldintza.

Horretarako, enpresek, INEM edo Lanbideko bulegoetara jo beharko dute bete behar dituzten postuen perfila betetzen duten herritarren zerrenda eskatzera, ondoren, enpresa izango da aukeraketaz arduratuko dena.

Udalak, kontratatutako pertsonak, posturako beharrezko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeaz arduratuko da. Hau da, enpresarekin duen kontratua indarrean dagoen bitartean langabezia egotea eta udalerrian errolatuta egotea.

Neurri honen bidez, alkatetzatik, enplegu mailan kritizatuak izango dute ezinbesteko aurre egorari aurre egitea dute helburu.

Tokiko Enplegu eta Egonkortasunerako Estatuko funtsarekin aurrera eramango diren Gaztelekua eta Loidi-Barreneko frontoia eta padelaren bigarren fasean jada klausula berri hau martxan jarriko da. •





Txiliteren eta beltzaren artean kontraste polia osatu zuten haurren taldekoak.



Txiliteren eta beltzaren artean kontraste polia osatu zuten haurren taldekoak.



DBHko bost taldek egin zuten dantza lanlanean Kultur Etxean eta mon. adokako dantzalerak ikusi ziren.



Bulakeran sailatu parte hartu zuten herritar, guztiak atera ziren oholzara eta euren irakade Maider Oiarzabal eta Amaia Navascuésekin dantza zuten.

# Dantzaz Blai emanaldi ikusgarria

■ Antzerki eta Dantza hamabostaldiak hasiera bikaina izan zuen larumbatean dantzarien ikuskizunarekin ■ Saioren bukaera zoragarria izan zen, talde guztiak dantza Eskolaren abestia estreinatu zutenean ■ Desfilea ostiralera arte atzeratu da eguraldi txararengatik

Lasarte-Oriako VIII. Antzerki eta Dantza Asteak hasiera bikaina izan du. Larumbatean arratsaldeko 7:30etan hasita herriko dantza taldeek euren ikuskizuna eskaini zuten topera beteta zegoen Kultur Etxean. Hamar taldek dantza zuten gaztixoekin hasi eta heldunek bukatuz eta azkenean Antzerki eta Dantza asterako propio egin duten abestia dantza zuten oholzara gainean ziren dantzarri guztiak eta ikusleek batera. 120 lagun ziren azkenean dantza elkarrekin eta saioren amaiera zirraragarria izan zen.

JON ALTXINA

zoragarrian denak elkarrekin Antzerki eta Dantza Astearen kanta dantza zuten. Arratsaldeko 19:30an erabaztu zuten Kultur Etxean, Sarean, lau emakume dotore orri batzuk banatzen, saioa ikusleentzat doan zen bitartean, parte hartzaileentzat tuko dute eta ondorengo 15 egunetan emanaldiak izango dira Kultur Etxean, goiz eta arratsaldez astelehenerdik aste-gunera eta gabez ostialdian. Larumbatean arratsaldeko 18:00etan egitekoa zen talde guztiaren desfilea betan behera gelditu zen eguraldi txarren-egaitik eta ostiraletan arratsaldeko 18:30etan egingo da. Dena den antzerki eta dantza zaleek gozatu ederra hartu zuten larumbatean arratsaldeko 7:30etan hasita burutu zen dantza ikuskizunarekin.

Maider Oiarzabal eta Amaia Navascués-ek zuzentzen dituzten hamar talde igo ziren oholzara gainera, ehun dantzarri baino gehiago guzti-ara, ordu eta erdiko emanaldi ikusgarria osatzeko. Hauarrak hasi eta pixkanaka helduagor-eko egin zuten dantza. Bulakera

izango diren emanaldien berri jaso ondoren erretiratu eta Dantzaz Blai emanaldia hasi ziren eta ondoren Antzerki eta Dantza asteko abestia ziren oholzara gainera, oin-hutsik, euren dantzak eskaintzera.

### Euskal dantza garaikidea

Haurren taldeek euskal dantza eta dantza garaikidea uzatu zituzten. LH4 eta LH5 mailetako bi talde izan ziren mailetako bi talde izan ziren euskal dantza. Haur hauek eskal dantza erakusten eta Maider Oiarzabal irakaslearen iritziz, garrantzitsua da korografia berri eta erakungarria dantza tradizionalak garbitzea, euskal dantzeak irau- dezaleten eta transmisio kultur-ralari esateko.

Handik aurrera, DBHko beste bost taldek, gazteen taldeak eta helduen bi taldek dantza garaikidea eskaini zuten, saio guztiak desberdink eta bikainak.

Bulakera oin-ikusgarriagoa izan zen. Dantzarri guztiak zuzen jarritako atera ziren oholzara. Astea buruko da

ondorengo bi asteetan. Landaberriko lau antzerki talderekin hasi zen Antzerki Eskola sentsu duela ezin ukatu, Astea Hamabostaldia bihurtu da, egun ia 40 talde an dira dantza eta antzerki egiten, Amnorrain eta Sasota-Zumaburu ikasleekin ere antzerki taldeak sortu dira... Gainera dantza ere pisu handia hartu du, 10 talde ari dira dantza garaikidea egiten, maila bikainean gainera larumbateko emanaldiari argi frogatu zenez.

Baina larumbatean Astea hasi besterik ez zen egin. Gaurririk aurrera, egunero goizeko 11etan eta arratsaldeko 19:00etan antzezlan bat eskainiko da Kultur Etxean, ostiraletan 18:30ean talde guzti-aren desfilea egingo da eta gaueko 22:30ean helduen Mikelenak eta Hiru desio lanak eskainiko dira. Datorren astean ere beste hainbeste saio guztiak Manuel Lekuona Kultur Etxean doan. Goizeko saioetara eskolako haurrak joango dira. Egitarau oso zabalaren orrialdean begiratu dafiteke. ■



Lau emakume dotore ikusleek ongi aurrerik ematen. Dorentzat ez zen tokirik izan Kultur Etxean.



Gazteek lana ermu egin zuten. Antzerkia egin zuten hasieran eta gero dantza ere bai.



DBHko talde bat ostropoak helduak eta diskriminazioa hautsia atem zen oholzara.



Hauak dira Antzerki eta Dantza Eskolako irakasleak. Geroi batzuk falta dira.



Guztiak elkarrekin Landaberri Eskolaren abestia (antzu eta dantza zuten bulakeran).

# Ahozkotasunaren jaialdian umoretsu

■ Landaberri eta Sasoetan bertsolaritza ikasten duten haurrek kantatu zuten kultur-etxean  
 ■ Taldeka prestatu zituzten bertso sortak eskolan eta taldeka kantatu zituzten elkarrekin

Aurreko osteguneko Ahozkotasunaren festan guztira 250 bat haur inguru igo ziren oholtzara taldeka bertsoak kantatzera. Talde bakoitzak hamar bat minutuko saioa egin zuen, gai bati buruzko seinak bertso kantatu zituzten, agurrarekin hasi eta amaituz. Umorea izan zen nagusi bertsoak kantatu zituzten neska mutilen artean, eta batzuei irri algarek ez zioten ondo kantatzen utzi, baina salbuespenak salbuespen, oro har, ederki abestu zituzten aurrez prestatutako bertsoak. Askok mozorrotuta egin zuten saioa.

JON ALTUNA

Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastoletan Unai Muñoa bertsolaria ari da bertsolaritza irakasleen eta ostegun arratsaldean bi ikastetxe hauetako ikasleek Kultur Etxean bertsoak kantatu zituzten. Gela bakoitzak gai baten inguruko bertsoak prestatu zituen eta beste guztien aurrean kantatu. Guraso asko joan ziren euren seme-alaben emanaldia ikustera. Hainbat gai jorratu zituzten, umorea, telebista, irakasleekin eta beste ikasleekin harremanak... asko mozorrotuta igo ziren oholtzara gainera eta oro har sorta bikainak kantatu zituzten.

Jada seigarren urtez jarraian gauzatu da egitasmoa Lasarte-Oriako ikastetxeetan eta Unai Muñoa arduradunak adierazi zuenez oso pozik daude izan duen bilakaerarekin: "Gipuzkoako bertsozale elkartearen ikusten ari garela lortzen diren emaitzak onak direla, ikastetxeekin sortu dugun harremana sendoa dela eta ari garela pausoak ematen. Bertsolaritzak beste eremu batzuetan laguntzen duela ere ikusten dugu, bertsoarekin euskaraz jolasteko aukera ematen diegu, hitzekin jolasteko, irudimena erabiltzeko, diskurtsoak antolatzeko eta garatzeko baliabideak".

Muñoaren ustez gauza garrantzitsu asko ikasten dituzte, "besteari entzuten, arrazoiak antolatzen, jendarean kantatzen eta kokatzen... eta gaur ikusiko duzuen horren eredu bat izango da, urte guztian astero geletan lantzen duguna, egin dugun saiakera gaur erakutsiko diezuegu eta ikusiko duzue zein den emaitza".

Unai Muñoaren ustez meritua handia dute oholtzara kantatu zuten neska mutilak: "eskatzen diegu gai baten inguruan pentsatzeko, argudiorik garrantzitsuena aukeratu, hori bertsoaren azken puntuan

kokatu, errimak bilatu, diskurtsoa egin, silabatan neurtu, koherentziarik ez galdu, kultur etxera etorri, ehunka lagun aurrean jarri, kantatu..." eta beraz, "miresteke moduko gaitasun eta adore hori eskertzeko" txalo bat eskatu zuen saioa hasi aurretik.

## Laguntzaileak

Bi ikastetxeetako irakasleentzat ere izan zen beste txalo bat ematen duten laguntzarengatik. Bukatzeko kantatzen duten neska mutilekin batera jaialdia posible egiten duten erakundeak aipatu zituen Unai Muñoak, ikastetxeak, Gipuzkoako bertso zale elkarteak eta diruz laguntzen duen Udala.

Arratsaldeko 5:30ean hasi zen lehen jaialdian, laugarren eta bosgarren mailako ikasleak aritu ziren, Landaberri ikastolako 5. mailako lau talde eta Sasoetako bi talde, 4.ekoa bat eta 5.ekoa bestea. Antzerkia, txiste kontaketa, jokoak eta bertsoa nahastu zituzten.

Lehen taldeak, Landaberriko 5A gelakoek, umore marroia landu zuen, 5B taldekoek oporretan aiton-amona, guraso eta umeek egindakoa kontatu zuten mozorroturik eta tonu umoretsuan, 5D gelakoek eztabaidak eraman zituzten saiora, mutil eta nesken, anai arrebek eta irakasle ikasleentzako elkarrizketak. 5E taldekoek bertso jolasa proposatu zuten: ikusleek bi bertso-asmakizun asmatu behar izan zituzten, bertso ona eta txarra zein ziren erabaki eta Mihiluze saioan bezala bertso baten errimak asmatu.

Sasoetako laugarren mailako ikasle ausartek euren haserrea kanporatu zuten eta irakasle zein gurasoen jarrera salatu: "Ai Zapotxin, Ai Zapotxin ez dago zer egin, guraso eta irakasleekin" leloa eta zenbait bertso kantatu. "Irakasleentzako artean oso txapak dira, ta joan daitezela oso urrutira", "kirola egitea oso ondo dago eta egin nahi dugu soinketa



Talde bakoitzak zortzina bertso abestu zituzten Ahozkotasunaren VI. jaialdian. Gela honek Simpson familia osatu zuen.



Talde batzuk mozorrotuta igo ziren oholtzara gainera. Umorea izan zen nagusi saioan zehar.



Une batean Mihiluz bezala errimak asmatu behar izan zituzten ikusleek.

gehiago", "piztina bat jarrita patio erdian, ta tranpolinarekin hobe da agian"...

Sasoetako bosgarren mailako Telebistako Simpson saioko pertsonaien itxurarekin igo ziren eskenatokira. Azkenean sorpresa eman zioten Unai Muñoa irakasleari.

## Munduko berri

Bigarren jaialdian 18:15ean hasita, Landaberri ikastolako seigarren mailako bost gelako neska-mutilek abestu zuten. Hauek ere mozorroak erabili zituzten euren gaiak landu eta bertsoak dotoretzeko. A gela-

koek mundua kolorez beteta dagoela erakutsi nahi izan zuten eta munduko herrialde ezberdinei buruzko bertsoak eskaini zituzten. Euskal Herriko pilotariekin hasi eta AEB, Mexiko, Paris, Hawaii eta Australiari buruzko bertsoak botatu zituzten.

6B gelakoek, asmakizunak kantatu zituzten, bertsoak kantatu eta ikusleek zertaz ari ziren asmatu behar zuten. 6D gelakoek telebistako programei buruz kantatu zuten eta 6E gelakoek, aldiz, abesti ezagunen letrak aldatuz hitzekin jolastu zuten.

Unai Muñoa gustura zen jaialdiarekin, "gaurko emanaldia lortzen ari garen emaitza onen ispilu da. Ez gara soilik Buruntza aldean ari, Euskal Herri osoan lantzen den proiektua da, 12.000 ikasle inguru ditugu Euskal Herri osoan eta uste dugu bertsoak erakustez gain beste hainbat alor ere landu ditzakegula bertsoaren bitartez, hizkuntzarekin eta hitzarekin jolastu, diskurtsoak egiten, arrazoiak ordenatzen, jendearen aurrean aritzen, irudimena erabiltzen, albokoari entzuten, bertsoez gain beste hainbat balore eta ezaugarri ere ikasten dituzte". •



Australiako berri eman zuten batzuek.

## Egunero

### Erakusketa

JUAN MARI CEREZO, herriko musikari zenaren omenez argazki erakusketa jarriko dute Lasarte-Oriako taldeek. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



### Erakusketa

MIGUEL A. FELIPEren lanak ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

## Astelehena, 24

### Zinea

TIERRA BAJO CORRIENTE eta ondoren CLIMATE OF HOPE (Clima de la esperanza) filmak eskainiko dira Osina elkarteak antolatutako EKOZINEMALDIAN. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan



## Indie eta fusion estiloak ostiralean kulturetxean

LOUISE MICHElen emanaldia Udalak eta Xpression taldeak duten hitzarmenaren barruan. Indie, fusion musika estiloak jorratzen ditu.

MAIATZAREN 21EAN, OSTIRALA  
KULTURETXEKO KAFETEGIAN 20:30EAN

## Ostirala, 28

### Kontzertua

ARIMAZ KAMERA ORKESTRAREN emanaldia Danok Kide elkarteak antolatutako V. Musika Topaketan barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

### Jam sesioa

J. 345 TALDEA izango da gonbidatua Jam Sesioan, Talde donostiarrak jazz, swing eta funk jorratzen du. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.

## Igandea, 30

### Dantza

XXII. DANTZARI TXIKI eguna ospatuko da. Herriko kaleetan zehar, egun osoan.



## Astelehena, 31

### Zinea

CON EL AGUA AL CUELLO, R.I.P.SOL, CONTRAJUNTA 2007 eta QUIERO SER TORTILLA filmak eskainiko dira Osina elkarteak antolatutako ekoinemaldian. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

## Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera  
10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irrati programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era  
Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

### Udako Txokoak

Ttakuneko Aisiako arduradunek gogorazi nahi dute Udako Txokotan (uztaila eta abuzturako) izena emateko azken eguna maiatzaren 19a izango dela, hau barne.

### Zabaletako festak

Zabaletako Auzo-elkarteak ekainaren lehenengo astean, ekainaren 2tik 6ra antolatuko ditu Zabaletako festak. Hauek antolatzeko asteartero, 19:30ean, Antonio Blas plazan bilera egingo dela jakinarazten du auzo elkarteak.

### Usurbilgo Lanbide Eskolaren ate irekiak

Maiatzaren 15 eta 22an Usurbilgo Lanbide Eskolak goizeko 11.00tan ate irekien jardunaldia ospatuko du. Informazio gehiago: 943364600 edo www.lhusurbil.com web atarian.

### Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelen. Errugby eskolako antolatzaileek Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

### Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkaitela jasota, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, belarririkoa bel-tza eta doratua, betaurreko graduatuak, erloju digitala, urrezko aliantza, Jose Luis grabaketarekin eta Osakidetza txartel bat.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar

dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden persona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiralean eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintzarri@txintzarri.info

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintzarri@txintzarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

## VIII. Antzerki eta Dantza Astea

### Astelehena 17

11:00etan eta 19:00etan  
*Mimo ariketak*, LH-3  
*Nemoren bila*, LH-4  
*Banpiro txikia*, LH-4

### Asteartea 18

12:00etan eta 19:00etan  
*Hamar minutu gauerdirako*, DBH-3 eta 4

### Asteazkena 19

11:00etan eta 19:00etan  
*Koloreak*, Amasorain ikastolako taldea  
*Otso guztiak ez dira gaiztoak*, eta *Koloretako mundua*, LH-1

### Osteguna 20

11:15ean eta, 19:00etan  
*Birtxikleatu Txikle-klovn*, LH-5

### Ostirala 21

22:30ean  
*Mikelenak*, Solaskideen helduen taldea  
*Hiru desio* (Perrault), Urre kuttuna Usurbilgo taldea

### Astelehena 24

11:00etan eta 19:00etan  
*Masajearen ibilaldia*, LH-2

### Asteartea 25

11:00etan eta, 19:00etan  
*Landa Berriko izarrak*, LH-6  
6. maila bukatu da, LH-6  
40 urte ta gero, LH-1

### Asteazkena 26

11:30ean  
*"Dantzaz Blai"*, Dantza Garaikideko saioa  
11:30etan eta 19:00etan  
*Oin Kixoteren abentura*, DBH-1 eta *Gonatan eta ero moduan*, DBH-2

### Osteguna 27

11:00etan eta 19:00etan  
*Ipotxaren etxea eta Printze urdinaren bila*, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko taldeak.

### Ostirala 28

22:30ean  
*20/Klovnkidetza*, helduen 1. taldea  
*A ze kuadrilla amonak eta hila* laburmetraia, helduen 2. taldea.



# Jende ugari Balioetan Hezi hitzaldietan

Lehenengo astean zehar Balioetan Hezi, Danok Kide elkarteak antolatzen dituen jardunaldiak ospatu ziren kultur etxean. Tolerantziaren inguruan eta honekin lotuta dauden beste balioetaz aritu ziren hizlariak. Elkarteak hitzaldi sortaren balorazio positiboa egin du. Herritar ugari bildu da, baina urtero bezala jende gaztearen falta somatu dela adierazi digute.

TXINTXARRI

**Tolerantzia eta honekin lotura duten gaien inguruan, hala nola, inmigrazioa edo erlijioa, izan dira aurten Danok Kide elkarteak antolatutako Balioetan Hezi jardunaldien VII. edizioan jorrotutako gaiak.**

Elkarteko arduradunek azaldu digutenez, jende ugari bildu da proposatutako lau hitzaldietara, "eguneko 60 bat pertsona bildu dira aretoan," baina jende heldua zen gehiena, aitona-amonak eta bada garaia gurasoek horrelako ekimenetan ere parte hartzekoa.

Lehenengo hitzaldia izan zen jendetsuena, eta gutxi

hirugarrena; tolerantzia eta inmigrazioaren gaia jorrotzen zuena. Datu hau adierazgarri egin zaie antolatzaileei, "tolerantzia eta inmigrazioa elkar loturik daudela uste baitugu".

Gauzak horrela, balorazio positiboa egiten dute antolatzaileek, izan ere, haien ustez "argi geratu da jorrotutako gaia egun puri-puritan dagoen gaia dela."

## Hizlarien trebetasuna

Tolerantziaren gaia korapilotsua da, eta hori argi islatu dela diote antolatzaileak.

Izan ere, hizlari batzuk tolerantzia izatea besteen gainetik bere burua jartzea bezala adierazi dute, eta beraiek argi dute hori ez dela tolerantzia-



Danok Kide elkarteak antolatutako Balioetan Hezi jardunaldietako hitzaldiak entzutera herritar ugari hurbildu da.

ren benetako adiera. Beraien aburuz, ezberdinen arteko elkarbizitza da tolerantzia.

## Danok Kide arriskuan

Era berean, Danok Kide guraso elkarteko antolatzaileek

herritarrei dei bat luzatu nahi izan diete.

Urte asko daramate lanean herrian, herriarentzat eta jada erreleboa hartzeko ordua iritsi zaiera uste dute. "Jende berria, gaztea behar da Danok

Kide bezalako proiektua aurrera eraman dezaten," adierazi dute.

2012an 50 urte beteko ditu elkarteak. Urte ugari dira gure artean, eta horrela izaten jarraitu dezan nahi dute. •

EUSKAL HERRIKO LESBIANA, GAY, TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN ELKARTEA  
GEHITU.NET

InfAsis  
informazioa  
eta laguntza  
943 45 17 22  
infasis@gehitu.net

2010  
TRANSFORMAZIORAKO URTEA